



2

• **BIGARREN SARIA**
TEORIA EKONOMIKOAREN EKARPENAK
SOZIOLINGUISTIKA ALORREAN

Jose M. Zendoia Sainz

*Irakaslea - Ikertzailea - Ekonomia Aplikatua I saila / Donostiako Enpresa-
Ikasketen Unibertsitate-Eskola (EHU/UPV)*

Helbide elektronikoa: jm.zendoia@ehu.es

1. SARRERA GISA: TEORIA EKONOMIKOA ETA HIZKUNTZALARITZA

Artikulu honetan aldagai linguistikoak Zientzia Ekonomikoan izan duen tratamendua abiapuntutzat hartuz, hizkuntza gutxituak aztertzekeo ikuspuntu berriak aurkeztuko dira.

Lehen apunte bezala hizkuntzak eta ekonomiak elkarren artean duten funtsezko lotura aipatuko dugu: hizkuntzak zeregin nagusia betetzen du gizarteen garapen ekonomikoan, gizarteko kideen arteko harremanak ahalbidetzen dituelako, eta harreman hauek bilakaera ekonomikoaren oinarria direlako, lana antolatu, ondasunak sortu eta trukatu, zerbitzuak eskaini eta aberastasuna banatzeko orduan.

Hala ere, zientzia ekonomikoak ez du hizkuntza gehiegi aztertu, ekonomian eragiten duen aldagai funtsezko gisa. Zerrenda bat osa genezake azken urteetan gai hau landu duten egileekin, eta ez litzateke oso zerrenda luzea izango. Azpimarratu behar da ere autore bakoitzak jakintza arlo eremu desberdinak erabili izan dituela, bai ekonomia, bai hizkuntzalaritza, adar ugaritan sailka daitezkeelako. Horrela, artikulu honen amaierako bibliografian zehazten diren artikuluak aurki daitezke

erreferentzia gisa, haietan hizkuntza faktorea merkatuari, lan harremanei, enpresen kostuei, enpresen antolaketari, marketinari edota giza kapitalari buruzko ikerketetan sartzen delarik. Honelako bilduma-lan iruzkindua alde aurretik eginga dago, esaterako F. Villancourt-en (1985) eta J.M. Zendoia-en (2001) artikuluetan, edo F. Coulmas-en *Language and Economy* liburuan (1992). Berrikuspen bibliografikoarekin jarraituz, ordea, ez dirudi azken hamarkadan gai honen inguruan ekarpen asko egon denik, ekonomilarien interesa ohiko ikerketa arloetan murgildu delarik.

2. TEORIA EKONOMIKOA ETA HIZKUNTZA GUTXITUAK

Hizkuntza gutxituen problematikaren inguruan aritzen diren adituak askotan aipatzen dituzte aldagai ekonomikoak haien jardunean, hala nola hizkuntzen erabilera sektore ekonomiko desberdinen arabera (enpresa industrialetan, zerbitzuen alorrean...), hizkuntzen sustapenari bideratutako baliabideak, hizkuntza batean edo bestean ekoiztutako ondasunen balioa, eta abar. Azken urteetan argitaratutako artikuluen analisia eginda ikusten da nagusitu den gaia izan dela gutxiengo linguistikoek jasaten duten deskriminazioa hizkuntza dela-eta, batez ere lan merkatuan, baina baita ere hezkuntza arloan, osasun zerbitzuetan, eta abar. Baina teoria ekonomikoak, bere *gordintasunean*, zer dio hizkuntza gutxituei buruz?

Zientzia ekonomikoa oparoa izanik, horren emaitza gutxi eskaini badigu sozio-linguistikarekin lotutako gaietan, ulertzekoa da, are urriago izatea literatura zientifikoa Teoria Ekonomikoak egin dituen ekarpenak hizkuntza gutxituei dagokionean. Horregatik interesgarria iruditu zaigu, lehenik eta behin, eta euskararen kasuan eduki ditzaketen balizko aplikazioak kontutan hartuz, hauetako hiru egileen erreferentzia egitea: Touissant Hocevar, Conrad Sabourin eta François Grin.

Lehenengoak 1975ean argitaratu zuen “Equilibria in Linguistic Minority Markets” artikuluan, eredu mikroekonomiko klasikoetan oinarrituz, hizkuntza nagusiak eta gutxituak sortzen dituzten bi merkatuen arteko oreka nola mugatzen den aztertzen saiatu zen, hiru ikuspuntu desberdinetatik: kontsumitzailearen oreka, ekoizlearen oreka eta langilearen oreka. Ekarpente teoriko gisa lehen mailako kontribuzioa iruditzen bazaigu ere, lortzen diren emaitzak datu empirikoekin bat ez datozela uste dugu, gutxienik euskararen kasuan eta ekoizlearen orekari dagokionean. Horregatik, eredu honen azalpen laburtu bat eskainiko dugu artikulua honen hurrengo puntuetan, erabilitako hipotesiak doitu behar direla adierazteko, inoiz eredu euskararen kasuan kontrastatzen bada baliagarria izan dadin.

Bigarrenak, 1985ean “La théorie des environnements linguistiques” argitaratu zuen, eta bertan, ordura arte askotan ikerketa gai izandako Quebeceko lan merkatua oinarritzat hartuz, langileengan lanpostuen ingurune linguistikoaren eraginaren ondorioak eredu teoriko batez azaldu egiten dira, tresna matematiko sakonez lagunduta. Lan honen ondo-

Hizkuntzak zeregin nagusia betetzen du gizartearen garapen ekonomikoan, gizarteko kideen arteko harremanak ahalbidetzen dituelako, eta harreman hauek bilakaera ekonomikoaren oinarria direlako, lana antolatu, ondasunak sortu eta trukatu, zerbitzuak eskaini eta aberastasuna banatzeko orduan.

Hocevarrek 1975ean argitaratu zuen artikuluan azaltzen duenez, hizkuntza gutxitu bat eta hizkuntza nagusi bat lurralde eta gizarte berean erroturik daudenean, ezaugarri linguistikoa dituzten produktu eta zerbitzuetarako –prentsa, liburuak, ikus-entzunezkoak, irakaskuntza,...– bi merkatu desberdin sortzen dira.

rio nagusia da ingurune linguistikoak garrantzia eduki dezakeela zenbait lanpostu betetzen dituzten langileen produktibitate-mailan, langilearen hizkuntz gaitasunaren arabera. Langileak bere satisfazioa handitzen du bere hizkuntzaren erabilera bermatzen dion ingurunean¹. Aurrekoaren ondorioz egileak frogatuztat ematen du hizkuntza bateko elebkarrek beste hizkuntzako elebidunek baino soldata txikiagoak, berdinak edota handiagoak eduki ditzaketela, horretarako enplegatzaileen jarrerak zer ikustekorik eduki behar izan gabe.

Eredu ekonomiko klasikoaren tresna modurik oparoenean erabili izan duena François Grin da. Ez hori bakarrik, eredu baten planteamendu intuitiboa plazaratu ondoren, beranduago jarraipena eman izan dio eredu berari sofistikazio berriak erantsiz. Teoria marjinaletan oinarritutako ereduez gain, merkaturatze eta marketin esparruetako garapen teorikoak egin izan ditu ere. Hizkuntza gutxituen egoera aztertzeke teoria ekonomikoaren baliagarritasuna proposatzeko ikerketa benetako maisu-lana iruditzen zaigu. Ekarpene honen ondorio nagusia da hizkuntza gutxituaren hiztunen multzoa gizarte osoarekiko txikia izan arren, hizkuntza horrek biziraupenerako baldintzak sendoak ziurta ditzakeela.

Aipamen bibliografiko hauekin bukatzeko, aipatu nahi dugu Ekonomi Eskola desberdinen arteko eztabaida zaharrek beren isla badutela ere hizkuntzarekin lotutako teoria ekonomikoaren ekarpenetan, eta horren adibide, ikuspuntu neoliberalen, sozialdemokrata eta marxisten arteko ikamikak arlo honetara iritsi direla ere. Ikus, esaterako, M. Lavoie-ren (1982) kritika A. Breton eta P. Mieszkowski-ren (1977) lanari: “Ces auteurs représentent la quintessence de ce que’a pu dire l’économie néo-classique sur la langue et le nationalisme”; edo ikuspegi marxista batetik, F. Rossi-Landi-ren ekarpenak (1983).

3. TOUISSANT HOCEVAR: HIZKUNTZA GUTXITUEN HIZTUNEN ESKARI-FUNTZIOA


Aurreko atalean aipatua izan den Touissant Hocevar esloveniarrak bere “Equilibria in linguistic minority markets”² artikuluan eskaintzen dituen ideietatik abiatuz, haien inguruko ekarpenak egin nahi izan ditugu. Autoreak zenbait puntu interesgarri ukitzen du artikuluan horretan, eta oraingoz horietatik bi sakonago aztertuko ditugu. Aurrerago egiteko lana, beraz, leku beretik sor daitezkeen teoria gehiago garatzea.

Puntu honetan kontsumitzaileen teoriarekin lotutako ereduaz aztertu eta garatuko dugu. Esan bezala, Hocevarrek 1975ean argitaratu zuen artikuluan azaltzen duenez, hizkuntza gutxitu bat eta hizkuntza nagusi bat lurralde eta gizarte berean erroturik daudenean, ezaugarri linguistikoa dituzten produktu eta zerbitzuetarako —prentsa, liburuak, ikus-entzunezkoak, irakaskuntza,...— bi merkatu desberdin sortzen dira. Merkatu horietako bakoitza bere aldetik azter daiteke, oreka nolakoa izango den

aztertzeko: prezioak, saldu eta erositako unitate-kopuruak, kontsumitzaileen baliagarritasuna, soldatak eta langileen produktibitatea dira merkatu bakoitzeko orekan jokatzen dituzten aldagaiak.

Hocebaren lehen hipotesiaren arabera, kapitalismoaren lehen fasean konkurrentzia perfektuak ahalbidetzen du enpresek eskala-errendimenduak limiteraino erabiltzea, eta ondorioz, hizkuntza nagusiko produktuek eskari handiagoa dutenez, oreka prezio txikiagoak edukitzea, ekoizpen honetara bultzatuz ere hizkuntza gutxituko kontsumitzaileak, azken hauek beren baliagarritasuna hobetuko dutelako hizkuntza nagusiko produktuak erosiz. Egileak dioenez, kapitalismo modernoan nagusituen konkurrentzia monopolistikoan, enpresek diferentziatu egiten dituzte beren produktuak, eta orduan hizkuntza gutxituetako produktuek, bereziak izanik, beren merkatu propioan bere prezioak dituzte, eta prezio hauek txikiagoak izan daitezke.

Egileak grafikoki ondoko irudiaz adierazten du gorago esandakoak (1. irudia): hizkuntza gutxituko kontsumitzailearen aurrekontu-lerroa hasieran AB zuzenak adierazten du —bere malda bi hizkuntzetako ondasunen prezioen arteko erlazioa delarik, hizkuntza nagusiko produktuak merkeagoak direlako—, eta bere baliagarritasun funtzioaren maila desberdinek lerro etenek —hauen maldak hizkuntza gutxituaren hiztunak bere hizkuntzaren aldeko lehentasuna agertzen duelarik—. Beraz, hasieran, baliagarritasuna maximizatzeko kontsumitzaile hori A puntuan egongo da, bere aurrekontu osoa hizkuntza nagusituko produktuak erosten gastatzen duelarik, q_{NA} kopuruan, eta hizkuntza gutxituko produkturik erosi gabe gertuko litzateke. Azken hauen prezioa parekatuko balitz hizkuntza nagusiko produktuen prezioarekiko, kontsumitzailearen aurrekontu-lerroa AC zuzenak adieraziko liguke (prezio berdinekin, zuzen honen malda -1 delarik), beraz, kontsumitzaile hori C puntura igaroko litzateke: ez luke hizkuntza nagusiko produkturik erosiko, eta bere aurrekontu osoa hizkuntza gutxituko q_{GC} produktu-kopurua erosten erabiliko luke.




(1. irudia)

Horrela planteatuta zilegitasun handiagoa ikusten diogu hizkuntza gutxituko ondasunen prezioa aldatzen denean gerta daitekeenari: hiztun elebidunak ez ditu muturreko kontsumo konbinazioak hartuko (soilik hizkuntza batean kontsumituz, ondasunen prezioen arabera) baizik eta tarteko konbinazioak hobetsiko ditu.

Hocearen ustetan aurreko hipotesia zilegizkoa da, kontsumitzaileek nahiago duelako produktu diferentziatuak aldatu, hauen konbinazio desberdinen artean aukeratzea baino³. Ez gaude ados hipotesi honekin, gutxienez euskara-gaztelera kasuan errealitateak argi eta garbi errefusatu egiten duelako, eta euskal kontsumitzaileak jatorriarekiko konbexuak diren indiferentzi kurbak edukiko dituela iruditzen zaigu, nahiz eta ardatzak ebaki ditzaketela onartu. Hau da, kontsumitzailearen teoria erabiliz, euskarazko eta gazteleraazko liburuak ez dira erabat ordezarriak, ez eta erabat osagarriak ere.

Aurrekoa grafikoki adierazteko 2. irudia erabiliko dugu. Bertan, hase-rako egoeran hizkuntza nagusiko produktuek prezio txikiagoa dute — erdia—, hizkuntza gutxituetako produktuekiko, eta hizkuntza gutxituko kontsumitzaileak RS bezalako aurrekontu-lerroa du, eta baliagarritasuna maximizatzeko A puntuan kokatuko da. Hizkuntza gutxituko produktuen prezioak jaisten badira, demagun hizkuntza nagusiko produktuek duten preziora iritsi arte, adibidez, orduan kontsumitzaile beraren aurrekontu-lerroa RT zuzenera aldatzen da eros-ahalmena handitu zaiolako, eta baliagarritasuna maximizatzeko, B konbinazioa aukeratuko du. Hizkuntza nagusian egiten zuen kontsumoa q_{NA} -tik q_{NB} -ra jaitsiko da, hizkuntza gutxituan egindako kontsumoa q_{GA} -tik q_{GB} -ra igotzen den artean.



(2. irudia)

Bai prezio batzuekin zein besteekin, guk uste dugu kontsumitzaileak bi hizkuntzetako produktuen konbinazio bat aukeratuko duela, beraz, ez dela muturreko soluzioetara iritsiko. Egia da hizkuntza gutxituko kon-

tsumitzaileak eduki ditzakeen indiferentzi kurbek hizkuntza gutxitu horretako produktuen aldeko alborapena eduki dezaketela, pertsona horri gehiago gustatzen bazaizkio hizkuntza gutxitua erabiltzen duten ondasunak, 2. irudikoen antzera. Horregatik hizkuntza nagusian kontsumitzeari uzten dion kopurua, hizkuntza gutxituan gehitzen duen kontsumoa baino txikiagoa da. Eta bi hizkuntzetako produktuetan antzeko prezioak izatetik, hizkuntza gutxituko produktuak garestiago izatera pasako balira, alderantzizko prozesua gertatuko litzateke

Horrela planteatuta zilegitasun handiagoa ikusten diogu hizkuntza gutxituko ondasunen prezioa aldatzen denean gerta daitekeenari: hartzun elebidunak ez ditu muturreko kontsumo konbinazioak hartuko (soilik hizkuntza batean kontsumituz, ondasunen prezioen arabera) baizik eta tarteko konbinazioak hobetsiko ditu.


4. TOUISSANT HOCEVAR: HIZKUNTZA GUTXITUEN ONDASUNEN MERKATUA

Hocevar berak, eta artikulua berean, hizkuntza bakar batean edo bitan sortutako ondasunak ekoizten dituzten enpresen merkatura aztertzen du. Gorago esan bezala, autoreak dio haserako kapitalismotik gaurko kapitalismo modernora merkatura aldatu dela konkurrentzia perfektutik konkurrentzia monopolistikora pasaz, eta ondorioz enpresek ondasun diferentziatuak egiten dituztenez, ezin direla eskala-ekonomiak erabili hizkuntza nagusiko ekoizpenarentzat. Aurrekoarekin ados egon bagaitezke ere, zalantzatan jartzen dugu horren ondorioa denik hizkuntza gutxituko ondasunen prezioak jaitsiko direla, Hocevarrek dioen moduan. Ikus dezagun autorearen bertsioa, eta errealitateak zer erakusten duen ikusi ondoren, geure soluzio alternatiboak planteatuko ditugu.

Konkurrentzia monopolistikoaren eredu arruntena 3. irudiak agertzen digu. Demagun hizkuntza nagusiko ondasunak ekoizten dituen enpresa bati dagokiola. Bertan, mozkinak maximizatzeko helburuz, enpresak $Q1$ ekoiztuko du (Sarrera marjinala eta Kostu marjinala berdintzen diren puntuan), $p1$ prezioan salduz, eskariak hala bultzatuta. Epe luzera Batez besteko Kostu Totalen kurba BKT lerroak adieraziko ditu, eta ondorioz, ez dira aparteko mozkinik lortuko —apartekoak, hots, produktu horretarako ekoizle monopolistikoa izateagatik lortutakoak—.


Egoera honetan enpresak gehiegizko produkzio-ahalmena duela esaten da, oraindik ere kostu txikiagoz ekoizten jarrai dezakeelako. Orduan, enpresa horrek bere gehiegizko ahalmena erabil dezake hizkuntza gutxituko ondasunak ekoizten, behin hizkuntza nagusiko ondasunen eskaria ase eta gero.

Hocevarren ondorioa da edozein modutan honelako enpresari interesatuko zaiola hizkuntza gutxituko ondasunak ekoiztea, hauek hizkuntza nagusiko ondasunak baino merkeago salduko dituelarik.



(3. irudia)


Aurreko eskeman hizkuntza gutxituko ondasunen ekoizpena eta eskaria gehitzen badugu, 4. irudian azalduko egoeran egongo ginateke, egilearen arabera:



(4. irudia)

Kosten egitura aldatuko ez balitz, hizkuntza gutxituko ekoizpena Q_1Q_2 tartean adieraziko luke, eta ondasun horiek P_2 prezioan salduko lirateke. Q_1+Q_2 produktuek, batez beste, prezio horien azpitiko kostua edukiko lukete, eta ondorioz, enpresak aparteko mozkinak irabaziko lituzke, haserako egoeran baino hobe egonik. Hau da, enpresa horri komeniko litzaioke bere gehiegizko ahalmena erabiltzea hizkuntza gutxituko ondasunak ekoizten, mozkinak modu nabarian igoko bailituzke. Hori guztia, hizkuntza gutxituko produktuen prezioa hizkuntza nagusikoena baino txikiagoa izanik ere.

Egileak berak dio ziurrenera hizkuntza gutxituko ondasunak ekoizten hasteak Kostu Marjinalen funtzioa igoaraziko duela, eta ondorioz ere, batez besteko Kostu Totalen funtzioa altuagoa izango dela hizkuntza gutxituko produktuak egiten hasten diren puntutik aurrera. Hau guzti hau ondoko irudiaren bidez azaltzen du:



(5. irudia)

Aurrekoaren ondorioz, orekako ekoizpena zerbait murriztuko da (Q_2 -tik, Q_2 -ra hizkuntza gutxituko ondasunentzat eta Q_1 -etik Q_1 -era hizkuntza nagusikoentzat, hain zuzen), eta eskari-funtzioak behartuta, prezioak zerbait igoko, baina edozein modutan, konkurrentzia monopolistakoan aritzen den enpresa honek aparteko mozkinak irabazten jarraituko du. Hobearen ondorioa da edozein modutan honelako enpresari interesatuko zaiola hizkuntza gutxituko ondasunak ekoiztea, hauek hizkuntza nagusiko ondasunak baino merkeago salduko dituelarik. Erabakiko balu ere prezio bereziketarik ez egitea, bi hizkuntzetako ondasunak salduz hizkuntza gutxituko ondasunen prezioan (bietatik merkeenean), hala ere aparteko mozkinak irabazten jarraituko luke.


Egia esan, eredu honek oso hausnarketa interesgarrira eramaten gaitu, baina hizkuntza gutxituekiko jarrera baikorregi batetik eginda dagoe-la iruditzen zaigu. Hain zuzen, hiru eragozpen mota ikusten ditugu gora-goko ereduaren ahal izateko erabili diren hipotesien multzoan:

- lehen merkaturako enpresen konkurrentzia mailari dagokio,
- bigarren eragozpena, berriz, kostuen funtzioaren ingurukoa da,
- hirugarrena, hizkuntza bakoitzeko ondasunen eskariarekin zer ikusia du.

Azkeneko honekin hasiko gara. Hizkuntza nagusiko eta gutxituko ondasunen eskari funtzioak dezentente desberdinak izan daitezke. Adibi-

Edozein modutan, badirudi teoria honek balio duela azaltzeko argitaletxe espainiar handien sarrera euskarazko testu-liburuen merkatuan. Balio dezake ere beste merkatuetan gertatzen dena azaltzeko ere.


dez, hizkuntza gutxituko ondasunen eskaria prezioarekiko oso zurruna balitz, ondoko irudiaren kasuaren antzeko bat edukiko genuke, eta ikusten denez, hizkuntza gutxituko ondasunen prezioak ez du iristen batez besteko kostua, enpresarentzat ez-errentagarri bihurtuz merkatu gutxitura bideratutako ekoizpena.



(6. irudia)

Horrelako kasu batean, enpresak ez luke hizkuntza gutxituko ondasunik ekoiztuko, eta hizkuntza nagusiko merkatua $Q1$ kopuruarekin ase ondoren, ekoizteari utziko lioke. Aztertu beharko litzateke kasu bakoitzean hizkuntza nagusiko zein gutxituko ondasunen eskariak nolakoak diren, batez ere beren zurruntasun mailari dagokionean. Dena den, euskara-gaztelera kasuan ez dirudi oso arraroa euskarazko eskaria askoz ere zurrunagoa⁴ izatea, 6. irudian agertu dugun moduan, eta ondorioz, konkurrentzia monopolistikoan aritu daitezkeen enpresek gaztelera-merkatura bideratuko dute beren ekoizpen osoa.

Ikusten dugun beste eragozpen bat kostuen egiturari dagokio. Hain zuzen ere, hizkuntza gutxituko merkatuaren eskaria asetzen hasteko, hizkuntza gutxituko lehen produktuek kostu marjinal altuak edukiko dituztela dirudi. Hocevarrek aipatzen du kostu finakoak mantenduko direnez, kostu aldakor berriek ez dutela eragin gehiegirik edukiko kostu marjinalen gain. Guk, dena den, kasu desberdinak egon daitezkeela uste dugu: agian oso merkatu zabala duten testu liburuentzat, euskarazko aleak egiten hasteko itzulpen-kostuak besterik ez daude, eta ekoizpen-maila erlatiboan altua izanik (ez soilik gaztelera-merkatuan, euskarazkoan ere), orduan batez besteko kostuak ez dira gehiegi igoko. Baina beste mota bateko liburuentzat, aurrekoa ez da hain nabaria. Zer esanik ez, euskarazko produktu orijinalen kasuan, non kostuen funtzioa lehen aletik zenbatu behar den.



(7. irudia)

Kosten egitura asko aldatzen bada hizkuntza gutxituko ondasunak ekoizten hastea, bi merkatuak asetzeko puntuan gerta daiteke, 7. irudian agertzen den bezala, batez besteko kostuak saldutako produktuen prezioa gaitzea, eta horregatik enpresari komeniko zaio soilik merkatu nagusia hornitzea.

Bukatzeko, enpresen konkurrentzia mailan ere eragozpenak topatzen ditugu. Egia da zenbait ondasunetarako enpresa handi eta gutxi batzuk besterik ez dutela merkatua hornitzen, baina beste zenbait produktuetan konkurrentzia handiagoa dago. Adibidez, irakaskuntzako lehen mailako testu liburuen kasuan badira Estatu espainiarreko merkatu gehiena asetzen duten kapital handiko enpresa batzuk, eta honelako merkatuan bete daitezke Hocevarren hipotesi guztiak. Baina argitateen mundutik atera gabe, euskarazko produkzioaren parte gehiena enpresa handiekin lehiatu behar duten euskal argitate txikien esku dago (nahiz eta hauetako batzuk euskarazko merkatuan indarra handia izan), eta hauei, kostu finko eta aldakorren funtzioek konkurrentzia arazoak sortzen dizkiete.

Edozein modutan, badirudi teoria honek balio duela azaltzeko argitate espainiar handien sarrera euskarazko testu-liburuen merkatuan. Balio dezake ere beste merkatuetan gertatzen dena azaltzeko ere. Aztertu beharko litzateke euskarazko ondasun eta zerbitzuen beste alorretan ere antzekorik betetzen ote den. Prentsa arloan egon dira saiakerak gaztelarazko egunkariek euskarazko astekariak argitaratzeko, haien baliabideekin handiagoa eman nahian-edo, baina emaitzen arabera ez dirudi errentagarri izan direnik. Edozein modutan, gaur egun idatzizko prentsa gainbehera dagoen sektorea izanik, agian ez genuke adibide hau erreferentzia bezala hartu behar. Baina badaude lan enpirikoa eskatzen duten beste sektoreak: telebista eskaintza, antzerki ekoizpenak, eta hartu duen

*Adibide gisa testu-
liburuen argitalpena
aipatu badugu ere, beste
sektoreetan jarduten diren
euskalgintzako enpresek
(prentsa edo diskogintza
moduko sektore
tradizionaletatik hasi eta
teknologia berrietan
espezializatu diren
Interneteko produktuen
eskaintza egiten
dituztenak arte)
birplanteatu ditzakete
beren estrategiak.*

garrantziari erreparatuz, teknologia berrien alorrean, sareko zerbitzuak: web-orrien diseinuak eta antzekoak.

5.- ONDORIOAK

Artikulu honetan Teoria Ekonomikoak eman dituen zenbait ekarpen aztertu ditugu, hizkuntza gutxituen ikuspuntutik begiraturata. Ez da oso oparoa Ekonomiak hizkuntza gutxituen inguruan egindako ibilbidea, baina zenbait gauza interesgarri topatu ditugu. Lehen hurbilketa batean T. Hocevar, C. Sabourin eta F. Grin-en lanak aipatu ditugu, horietatik lehenengoaren azterketan gehiago sakondu dugularik hurrengo puntuetan.

Hiztunen baliagarritasun funtzioa erabiliz, hizkuntza gutxituko eta nagustiko ondasunen arteko aukera nolakoa izan daitekeen ikusi dugu, maila teoriko batean. Hocevar-ek azaldutako teoriari gure iradokizunak erantsi dizkiogu. Lan honek ikerketa enpiriko bat eskatzen du hurrengo pausu gisa, eukarazko eta gaztelera/frantsesezko ondasunen kontsumoan euskaldunok jarraitzen ditugun jarrerak hemen azaldutako teoriarekin alderatzeko.

Azkenik, hizkuntza gutxitu eta nagusien ondasunen ekoizpenari buruz Hocevarrek planteatzen duen eredia aztertu dugu, oso ekarpen interesgarria baita euskarazko ondasunak ekoizten dituzten enpresen estrategiak finkatzeko garaian. Merkatua aztertu beharko litzateke eskarien elastikotasun mailak ezagutzeko, kostuen egiturak alderatu behar dira, eta hau guztia balizko aliantzak zein enpresa-taldeekin eta zein esparrutarako egin beharko liratekeen erabakitzekeo garaian oso baliagarria izan daiteke. Eta adibide gisa testu-liburuen argitalpena aipatu badugu ere, beste sektoreetan jarduten diren euskalgintzako enpresek (prentsa edo diskogintza moduko sektore tradizionaletatik hasi eta teknologia berrietan espezializatu diren Interneteko produktuen eskaintza egiten dituztenak arte) birplanteatu ditzakete beren estrategiak, gaztelera edo ingelesezko zein frantsesezko— antzeko produktuak ekoizten dituzten enpresekin lehiatzeko edo akordioetara iristeko, batez ere globalizazioaren eta enpresen arteko bateratzeen garai honetan.■

6. ERREFERENTZIAK

Breton, A., Mieszkowski, P. (1977): "The Economics of Bilingualism", *The Political Economy of Fiscal Federalism* (W. Oates, ed.), 261-273 orr., Lexington Books, Lexington.

Caminal, R. (2009): "Markets and linguistic diversity", Institut d'Anàlisi Econòmica, CSIC, Bartzelona. <http://pareto.uab.es/wp/2009/78109.pdf>

Casson, M. (1996): "Economics and Anthropology - Reluctant Partners", *Human Relations*, 49. bol., 9. Zkia., 1151-1180 orr.

- Coulmas, F.** (1992): *Language and Economy*, Blacwell, Oxford.
- Coulmas, F.** (1999): "Language masters: defying linguistic materialism", *International Journal of the Sociology of Language*, 137 bol., 27-38 orr.
- Fishman, J.A.** (1989): *Language and ethnicity in minority sociolinguistic perspective*, Multilingual Maters, Clevedon.
- Flatharta, P. Ó.** (1995): "Business and Management Education in Lesser used Languages", *Economic Development and Lesser Used Languages: Partnerships for Action*, Cwmni Iaith, Aberaeron, Dyfed.
- Grin, F.** (1990): "The Economic Approach to Minority Languages", *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 11, 153-174 orr., Pergamon Press, Oxford.
- Grin, F.** (1993): "The relevance of thresholds in language maintenance and shift: a theoretical examination", *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 14 bol., 5 zkia., 375-395 orr.
- Hočevár, T.** (1975): "Equilibria in linguistic minority markets", *Kyklos*, 28, 337-357 orr.
- Hočevár, T.** (1983): "Les aspects économiques de la dynamique fonctionnelle des langues", *Language Problems and Language Planning*, 7. bol., 135-147 orr.
- Lavoie, M.** (1982): "Bilinguisme, langue dominant et réseaux d'information", *L'Actualité Économique*, 38-60 orr.
<http://www.erudit.org/revue/ae/1983/v59/n1/601042ar.pdf>
- Levy D.M.** (1997): "Adam Smith's rational choice linguistic", *Economic Inquiry*, 35. bol. (3), 672-678 orr. <http://www.press.umich.edu/pdf/0472112198-11.pdf>
- Rossi-Landi, F.** (1983): *Language as work and trade. A semiotic homology for Linguistics and Economics*, Bergin and Garvey Publishers, Massachusetts.
- Sabourin, C.** (1985): "La théorie des environnements linguistiques", *Economie et Langue* (F. Vaillancourt, ed.), Editeur Officiel du Québec, Montréal, 59-82 orr.
- Vaillancourt, F.** (1985): "Les écrits en économie de la langue: brève revue et introduction au recueil", *Economie et Langue* (F. Vaillancourt, ed.), Editeur Officiel du Québec, Montréal, 11-25 orr.
- Zendoia, J.M.** (2001): "Hizkuntza-faktorea analisi ekonomikoan. Hizkuntza gutxituak aztertzeo ekarpen berriak", *Uztaro, giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 36 zkia., 3-24 orr. http://www.uztaro.com/uztaro_fitxategiak/506_uztaro36_1.pdf

Artikulan erabilitako oinarritzko teoria ekonomikoa, euskaraz hemen:

- Samuelson, P., Nordhaus, W.** (1999): *Ekonomia*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Varian, H.R.** (1999): *Erdi mailako mikroekonomia: ikuspegi modernoa*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.

Zurbano, M. (1993): *Mikroekonomia I*, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo. http://www.buruxkak.org/pdf/247_Mikroekonomia.pdf

OHARRAK

1. Egilearen arabera, salbuespenak lirateke hizkuntza arrotza erabiltzea nahiago dutenak, bai hizkuntza hori ikasi nahi dutelako, bai prestigio gehiagokoa dela uste dutelako.
2. Hocevar, T.: "Equilibria in linguistic minority markets", *Kyklos*, 28. bol, 1975.
3. "The consumer is more likely to switch between differentiated products altogether than to purchase them in varying combinations", Hocevar, aipatu artikulua 341. orrialdean.
4. Honek adierazi nahi du prezio aldaketek askoz ere eragin gutxiago dutela euskarazko produktuen kasuan, kontsumo finko bat mantentzea errazagoa izanik, eta gaztelerazko produktuen eskarian, berriz, prezioen aldaketek eskatutako kopuruan eragin handiagoa dutela.